



# **GOBERNU BILERA**

Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2021ko urriak 5**

**Vitoria-Gasteiz, 5 de octubre de 2021**

## Gobernantza Publiko eta Autogobernua

### **EUSKO JAURLARITZAK AMORE EMAN DU LEHEN ALARMA EGOERAKO ISUNENGATIKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOETAN**

- **Bide hori erabili duten kaltetuek ez dute Segurtasun Sailak 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 21era bitarte ezarritako isuna ordaindu beharko**
- **Amore ematea Konstituzio Auzitegiak emandako epaiaren ondoren gertatu da. Epai horretan, Konstituzioaren aurkakotzat eta baliogabetzat jo zituen alarma egoeraren Errege Dekretuaren hainbat atal**

Gobernu Kontseiluak baimena eman dio Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiari 2020ko martxoaren 14an dekretatutako lehen alarma egoeran zehapen-prozedurak ireki eta izapidetu zaizkien pertsonak eskatutako administrazioarekiko auzi-errekurtsuetan amore emateko. Horrela, Eusko Jaurlaritzak atzera egin du eta horrek prozesu judizialaren amaiera dakar. Ondorioz, auzibide horretara jo duten dozenaka kaltetuek ez dute isuna ordaindu beharko.

Konstituzio Auzitegiak, 2021eko uztailan emandako epai batean, Konstituzioaren aurkakotzat eta baliogabetzat jo zituen 463/2020 Errege Dekretuaren hainbat atal. Dekretu horrek Covid-19ak eragindako osasun krisiaren egoera kudeatzeko alarma egoera arautzen zuen, eta, horren arabera, herritarren mugikortasuna nabarmen murrizten zen. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila zigor espedienteak hasten aritu da 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 21era bitarte etxeko konfinamendua ez betetzeagatik.

Konstituzio Auzitegiaren epaia ikusita, Eusko Jaurlaritzak ondorioztatu du administrazio-jarrerak ez duela bideragarritasun juridikorik, eta, beraz, Zerbitzu Juridikoei eskatu zaie amore emateko administrazioarekiko auzibidean aurkeztutako errekurtsuetan.

## Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

### 14,8 MILIOI EUROKO LAGUNTZAK EUSKAL ARRANTZA- ETA AKUIKULTURA-SEKTORE JASANGARRIA BABESTEKO

- **Teknologian, energia-eraginkortasunean eta giza kapitalean oinarritutako sektore jasangarria eta berritzailea sustatzeko**
- **Zenbatetsi da 9 milioi arrantza jasangarrira bideratuko direla, 3,8 ekoizpen- eta merkaturatze-neurrietara, eta gainerakoa akuikulturara**

Eusko Jaurlaritzak, Arantza Tapia Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren aginduaren bidez, 14,8 milioi euroko laguntzak onetsi ditu, **Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza- eta akuikultura-sektorea** babesteko. Laguntza horien helburu nagusia da teknologian, energia-eraginkortasunean eta giza kapitalean oinarritutako sektore jasangarria eta berritzailea sustatzea.

Honako hauek izan daitezke laguntzen onuradunak: diruz lagundu daitezkeen inbertsio eta gastuak kontratatzen, finantzatzen edo egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak, ondasun-erkidegoak, arrantza-erakunde profesionalak, arrantzaleen kofradiak eta haien federazioak, eta organismo zientifiko eta teknikoak.

**Onetsitako laguntzetatik, zenbatetsi da 9 milioi arrantza jasangarrira bideratuko direla, 3,8 milioi ekoizpen- eta merkaturatze-plan eta -neurrietara, eta gainerakoa akuikulturara.** Deialdi honetako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak EAEko funtsetatik (3,7 milioi) eta FEMP Europako Itsas eta Arrantza Funtsetik (11,1 milioi) etorriko dira.

Laguntza-lerroak, besteak beste, honako eremu hauetara bideratuko dira: arrantza-berrikuntza; arrantza-sektoreko belaunaldien arteko erreleboa, osasuna eta segurtasuna arrantza-ontzietan edo norbanako ekipamenduetan egiten diren inbertsioetan; arrantzak itsas ingurunean duen inpaktua mugatzeko neurriak hartzea eta arrantza espezieak babesteko egokitzea; biodibertsitatea eta itsasoko ekosistemak babestea eta lehengoratztea; arrantza-jarduera jasangarrien esparruko konpentsazio-erregimenak; eta energia-eraginkortasuna eta klima-aldaketa arintzea.

### **Epeak**

2021 ekitaldian laguntza hauek jasotzeko eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindua indarrean sartzen den egunetik zenbatzen hasita. Nolanahi ere, epe barruan aurkeztutakotzat joko dira agindua argitaratu baino lehen aurkeztutako proiektuak, betiere 2021 ekitaldian aurkeztu badira.

Izapidetzeko jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta formulario-ereduak biltzen dituen administrazio-prozeduraren informazio-fitxa, eskaera-formulariorako sarbidea ematen duena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan dago eskuragarri, helbide honetan: [https://www.euskadi.eus/zerbitzu\\_elkartzea/2021/femp-2021/web01-a2arraku/eu/](https://www.euskadi.eus/zerbitzu_elkartzea/2021/femp-2021/web01-a2arraku/eu/)

## Hezkuntza

### HEZKUNTZA SAILAK 2,2 MILIOI EURO BIDERATU DITU UNIBERTSITATE IKASLEEN NAZIOARTEKO MUGIKORTASUN PROGRAMETARAKO

- **2020-2021 ikasturtean, nazioarteko mugikortasunerako 1.160 laguntza eman ziren Euskadin**
- **Hezkuntza Sailak 350.000 euroan handitu du deialdi honetarako diru-kopurua, mugikortasun-programetan parte hartuko duten ikasleen kopurua handituko dela aurreikusita**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez gaurko bileran onartu du 2021-2022 ikasturtean unibertsitate ikasleen nazioarteko mugikortasun programak izan eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden unibertsitateentzako eta Goi-mailako Arte eta Kirol irakaskuntzen ikastetxeentzako dirulaguntzen deialdia egiten duen agindua.

Dirulaguntza deialdi honek 2.200.000 euroko zenbatekoa du 2021-2022 ikasturterako. Aurreko ikasturteekin alderatuta, Hezkuntza Sailak 350.000 euroan handitu du deialdi honetarako partida. Izan ere, unibertsitateek mugikortasun-programetan parte hartuko duten ikasleen kopurua %20an hazi daitekeela aurreikusten dute.

Europako Batasunak Erasmus+ programako mugikortasunetarako egiten dituen diru-ekarpenena ez da nahikoa kostuen %100 finantzatzeko; beraz, finantzaketa zabaltzea beharrezko gertatzen da deialdi honen bidez. Era berean, unibertsitate-mugikortasunetako zenbait Erasmus+ programan sartuta ez dauden destinoetara egiten da; horrela bada, horiek ez dituzte Europako erakundeek laguntzak jasotzen, eta, beraz, beste mugikortasun-programa horietan parte hartzen duten pertsonak finantzatu beharra ere agerian geratzen da.

Nazioarteko mugikortasun programetan parte-hartzeak goi-mailako ikasleen formaziorako duen garrantziaz ohartuta, Hezkuntza Sailak aipatutako marko hori zabaltzen du, deialdi honen bidez. Erasmus+ programara eta nazioarteko izaera duten bestelako mugikortasun-programetara atxikitako pertsonen mugikortasunen finantzazioa hobetzea da azken helburua.

Deialdi honek jasotzen duen diru-kopuru osoa (2.200.000€), beraz, era honetan banatua gelditzen da:

- 660.000 euro, SEPIE estatu erakundeak (Hezkuntza Nazioartekotzeko Espainiako Zerbitzua) emandako laguntzak osatzeko
- 1.540.000 euro, estatuko erakunde horren laguntzarik gabe egiten diren egonaldietarako

Dirulaguntza horiek eskatuko dituzten erakundeak, ikasturte honetarako nazioarteko mugikortasun-programak dituzten unibertsitateak edo Goi-mailako Arte eta Kirol irakaskuntzen ikastetxeak izango dira; dirulaguntzen azken onuradunak, berriz, mugikortasun-programa horietan parte hartzen duten

ikasleak, betiere EAEko udalerriren batean administrazio-egoitza dutenak. Ikasle horiek gradu ko unibertsitate-titulua ofiziala edo unibertsitate-masterra lortzeko ikasketak egiten, zein Goi-mailako Arte edo Kirol irakaskuntzak burutzen egon beharko dute 2021-2022 ikasturtean.

Joan den 2020-2021 ikasturtean nazioarteko mugikortasunerako 1.160 laguntza eman zituen Hezkuntza Sailak Euskadin, deialdi honen bidez.

## Hezkuntza

### **500.000 EUROKO DIRULAGUNTZA EUSKAMPUS FUNDAZIOARI, LANKIDETZARAKO MUGAZ GAINDIKO LABORATEGIEN SAREA GARATZEKO**

- **2015ean ekimena abian jarri zenetik Lankidetzarako Mugaz Gaindiko lau laborategi sortu dira, Euskampus-Bordele Kanpusaren esparruan**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 500.000 euroko dirulaguntza zuzena ematea Euskampus Fundazioari, R-LTC ekimena garatu dezan, hau da, Lankidetzarako Mugaz Gaindiko Laborategien Sarea.

Lankidetzarako Mugaz Gaindiko Laborateak (LTC) bikaintasuneko ikerketa nazioartekotzen duten ekimenak dira, eta berrikuntza sustatzen dute ikerketatik. Esparru egonkor bat eskaini nahi dute esparru espezifiko batean ikerketa-proiektuak gauzatzeko, emaitza zientifikoaren balio erantsia handitzeko eta mugaz gaindiko baterako ikerketaren ikusgarritasuna handitzeko Europako Batasunen eta nazioartean.

#### **Mugaz gaindiko ikerketa komunitateak**

Lankidetzarako Mugaz Gaindiko Laborategiak 2015az geroztik garatzen dira Euskampus Bordele Kanpusaren esparruan, Bordeleko Unibertsitatearen eta Euskal Herriko Unibertsitatearen artean. Euskampusen bazkide estrategikoak (Tecnalia eta DIPC) eta IdEx Bordeaux ere ekimenaren sorreran daude, bai eta laborategiaren helburuak lortzen lagun dezaketen EAEko edo Frantziako beste ikerketa-erakunde batzuk ere.

Erakunde-esparru egonkor bat eskaintzen du ekimen honek, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Bordeleko ikerketa-taldeek elkarrekin lan egin dezaten eta benetan mugaz gaindikoak diren ikerketa-komunitateak sortzen lagun dezaten, ikertzaile junior edo seniorrak eta ikasleak tartean sartuz. Hauek ikerketa-talde batetik bestera mugarik gabe igaro daitezke eta horrela ikuspegi komun bat partekatu.

Ekimenaren sorreratik, Lankidetzarako Mugaz Gaindiko lau laborategien sortu dira:

- Kimika fisikoan eskala kuantikoan, QuantumChemPhys
- Ingeniaritzan, AENIGME (Fabrikazio Berdeko eta Ekodiseinuko Akitania Euskadi Sarea)
- Matematikan eta bere aplikazioetan, TRANSMATH
- Zementu-oinarri jasangarrietan konposatutako materialetan, GREEN CONCRETE

Lankidetzarako Mugaz Gaindiko Laborategi hauek mugarri bat izan dira mugaz gaindiko eta euroeskualdeko campusa garatzeko eta sendotzeko.

Euskampusi, patronatua osatzen duten erakundeetako ikerketa-taldeen eta Bordeleko Unibertsitatearen arteko lankidetzaren eragile katalizatzaile, bideratzaile eta dinamizatzaile gisa, LTCak diseinatu eta inplementatzea dagokio. Helburu nagusia izan da egonkortasun-esparru bat ematea taldeen arteko lankidetzari, aldez aurretik behar bezain ibilbide sendoa izanik, talde hauek ikerketa partekatua agendaren barruan proiektu estrategiko berriak bultzatzen baitituzte.

Euskampusiek, LTC bakoitzarekin sinatutako hitzarmenen bidez, laborategi bakoitzak egiteko konpromisoa hartzen duen ikerketa-proiektuek eragindako gastuak eta inbertsioak finantzatuko ditu.

## Hezkuntza

### 480.000 EURO EKIPAMENDU ZIENTIFOKOA ESKURATU ETA NEUROBIOZIENTZIEN EREMUAN BIKAINTRASUNEN IKERKETARI BULTZADA EMATEKO

- **Hezkuntza Sailaren Ikur 2030 Estrategiaren baitan kokatzen diren dirulaguntza hauek Achucarro eta BCBL bikaintasuneko ikerketa zentroi (BERC) zuzenduak dira**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran baimendu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, bi dirulaguntza zuzen ematea BCBL eta Achucarro bikaintasuneko ikerketa zentroi. Orotara 479.684 euroko kopurua egiten duten laguntza hauek, Neurobiozientzien eremuan egiten duten ikerketa lanerako ekipamendu zientifikoa eskuratzeko erabili beharko dituzte aipaturiko bi ikerketa zentroek.

Dirulaguntza hauek Hezkuntza Sailaren Ikur 2030 Estrategiaren baitan kokatzen dira. Estrategia honen helburua da Euskadiko sare zientifikoa indartzea eta nitxo zehatzetan nazioarteko posizionamendua lortzea. Horrela bada, lau ikerketa-eremu estrategikoren aldeko apustu sendoa egiten du strategiak: Teknologia Kaultikoak; Neutronikoa; Superkonputazioa eta Adimen Artifiziala; eta Neurobiozientziak. Achucarro eta BCBL bikaintasuneko ikerketa-zentroi emandako laguntzak azken eremu honen aldeko apustuan kokatzen dira.

Gaur onarturiko laguntzak honela banatzen dira, eta ondoren azaltzen den ekipamendua eskuratzeko:

**399.684 euro Achucarro Basque Center for Neuroscience zentroari, beste mikroskopia konfokal bat eskuratu eta horrela Euskadiko EuroBioImaging nodoa indartzeko.**

Mikroskopiak Achucarroren ikerketa jardueran duen garrantzia aintzat hartuta, ikerketa zentro honek beste mikroskopia konfokal bat eskuratzeko premia du, lehendik daukanaren osagarri izango dena. Super-bereizmen teknologia garatzen duen eta laginak eskala nanometrikoan behatzea ahalbidetzen duen mikroskopioaz ari gara. Mikroskopia berri hau, balio erantsia izango da zentro honetako azpiegitura erabiltzen duten ikertzaile guztientzat, bai bertako ikertzaileentzat, bai euskal unibertsitate ekosistemako gainerako ikerketa taldeentzat. Era berean, erosketa berriak Achucarro ikerketa zentroari aukera emango dio kide den EuroBioImaging sare europarrean hobeto kokatzeko, bai eta Euskadin Neurobiozientzien ikerketari indar berria emateko ere.

Leioako Zientzia Parkean kokaturik dagoen Achucarro Basque Center for Neuroscience zentra Hezkuntza Sailaren menpeko BERC zentro bat da (Basque Excellence Research Centre). Garuneko gaixotasunetarako terapia berriak aurkitzeko biologia neuro-glialeko oinarritzko ikerketa translazionalean dihardu lanean.



**80.000 euro BCBL-Basque Center on Cognition, Brain and Language zentroari, bertako *Eye Tracking* Laborategiari bultzada emateko.**

Laguntza honen helburua da BCBLren *Eye Traking* Laborategiari bultzada ematea da, bertako ekipamendu zientifikoa eguneratu eta berrituta. BCBL-k laguntza honi esker eskuratuko duen ekipamenduak aukera ematen du irakurketa-lanetan edo irudiak eta bideoak prozesatzearen azpian dauden prozesu mentalak ikertzeko, eta, horrela, prozesu kognitiboak ikasi ahal izateko, hala nola arreta, memoria, arazoan konponbidea edo hizkuntza. Teknika hori bereziki baliagarria da irakurketaren azterketarako; izan ere, irakurlearen begirada hitz bakoitzean finkatzeko denborari buruzko informazioa lortzeko aukera ematen du. Era berean, esaldi bat irakurtzeko erabiltzen den sekuentzia, denbora gehien behar duten zatiak eta ezagutzen ez diren hitzak identifikatzeko aukera ematen du.

Begi-mugimenduen jarraipena egiteko laborategiko ekipamendua eguneratzeak aukera emango dio BCBLri ikerketa arlo honetan abangoardian jarraitzeko, bai teknologian eta bai ezagutzan.

BCBL (Basque Center on Cognition, Brain and Language) Hizkuntzaren Neurozientzia kognitiboaren arloan ari den bikaintasuneko ikerketa zentroa da (BERC), eta Donostian du egoitza. Honako ildo hauek ikertzera bideratuta dago bereziki:

- Hizkuntza, irakurketa eta garapenaren nahasmenduak
- Eleaniztasuna eta bigarren hizkuntzaren ikaskuntza
- Neurodegenerazioa, kalte zerebrala eta zahartze osasuntsua

## Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

### **GOBERNU KONTSEILUAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGOERARI BURUZKO ZIFREN TXOSTENA ETA BOTERE PUBLIKOEN BERDINTASUNEAN IZANDAKO JARDUNAREN MEMORIA JASO DITU**

Gobernu Kontseiluak txosten hauen berri zian du gaur: [Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko 2020rako Zifrei buruzko Txostena](#) eta [EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana gauzatzean botere publikoek izan duten jarduera-memoria](#). Txosten horiek Emakunderen Zuzendaritza Kontseiluak onartu zituen 2021eko ekainaren 14an eta orain Jaurlaritzak Legebiltzarrera bidaliko ditu.

Zifra-txostenaren helburu nagusia administrazio publikoei genero-desberdintasunei eta horien bilakaerari buruzko informazio eguneratua ematea da, emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko estrategiak eta politikak definitu ahal izan ditzaten, diagnostiko sendoagoetan oinarrituta. Bestalde, Botere publikoen Jarduera-Memoria Emakundek egiten du urtero, eta administrazio publikoek berdintasunaren arloan egiten dituzten jardueren azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa jasotzen du.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK EUSKAL KULTURA ONDAREAREN ERAKUNDE ARTEKO ORGANOAREN OSAERA ETA FUNTZIONAMENDUA ARAUTUKO DITU**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Euskal Kultura Ondarearen Erakunde arteko Organoaren osaera, antolaketa, funtzionamendua eta zereginak arautzen dituen dekretua.

Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak zehazten ditu euskal herri-administrazioetako hiru mailetako bakoitzari (Eusko Jaurlaritza, aldundiak eta udalak) euskal kultura-ondarearen arloan dagozkion jarduketak. Euskal Kultura Ondarearen Erakunde arteko Organoa arduratzen da hiru administrazio-mailen arteko komunikazioaz, lankidetzaz eta laguntzaz, euskal kultura-ondarea babesteko sistema homogeen bat lortzeko.

Honako hauek dira organoaren zereginak:

- Euskal kultura-ondarearen babesari buruzko informazio-trukea eta elkarlana bultzatzea.
- Irizpide bateratuak eta jarduketa-planak proposatzea, euskal kultura-ondarea zaintzeko, transmititzeko, bere balioa nabarmentzeko eta haren zabalkundea egiteko.
- Euskal kultura-ondarea sustatzeko koordinazio-neurriak proposatzea.
- Euskal kultura-ondarea babesteko eta kudeatzeko lanean inplikaturiko beste administrazioekin lankidetzara eraginkorra bultzatzea, batez ere lurralde-antolamendu eta hirigintzarekin, etxebizitzarekin, industriarekin, ingurumenarekin, turismoarekin eta hezkuntzarekin.
- Parte hartzeko mekanismoak antolatzea, herritarrek kultura-ondasunen babesa proposatu dezaten.
- Kultura-ondasunen deskontaminazio bisual eta akustikorako plan bat egitea.
- Euskal kultura-ondarea babesteko eta balioesteko hobekuntza-neurriak proposatzea, kontuan hartuta kultura-ondasun mota bakoitzaren berezitasunak eta indarrean dagoen araudian horretarako esleitutako eskumen-banaketa.
- Jarduteko metodo eta protokoloen homogeneizazioa bultzatzea, Euskal Kultura Ondarearen Erakunde arteko Organoan ordezkaturako administrazio publikoen artean adostuta.
- Kultura-ondarearen arloan erantzukizunak dituzten euskal administrazio publikoetako zerbitzuen arteko lankidetzara-hitzarmenak bultzatzea. Nolanahi ere, eraginpeko administrazioek berretsi eta formalizatu beharko dituzte akordio horiek.
- Kultura-ondareari buruzko informazio-eredu komun bat ezartzea zerbitzu guztietan.
- Euskal kultura-ondarea babesteko lege-aurreproiektuei eta xedapen orokorren proiektuei buruzko informazioa izatea.

- Koordinazio-estrategiak eta -proposamenak planteatzea euskal administrazio publikoen politika publiko sektorialen eremuan, euskal kultura-ondarea defendatzeak eta balioesteak horietan nolabaiteko eragina izan dezan.
- Kultura-ondarea babesteari buruzko araudien (autonomikoak, foru-mailakoak eta tokikoak) gaineko informazioa jasotzea.

Euskal Kultura Ondarearen Erakunde arteko Organoak 12 kide izango ditu: Eusko Jaurlaritzako sei kide, foru aldundietako hiru ordezkari eta udalen beste hiru ordezkari. Gainera, Gobernu Kontseiluak gaur onartutako dekretua argitaratu eta hiru hilabeteko epean eratu beharko da.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **HABEK ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK B2 MAILARA BITARTEKO IKASKETAK DOAN IZATEKO HITZARMENA BERRETSI DUTE**

Gaurko Gobernu Kontseiluak onartu du HABE- Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena. Akordioaren arabera Gipuzkoan helduen euskalduntzean B2 mailara bitarteko ikaskuntza prozesua doakoa izango da. Helburu hori lortzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak HABEren sistema barruan euskara mailak gainditu dituzten gipuzkoar ikasleei laguntza osagarriak emango dizkie.

Gobernu Kontseiluak gaur onartutako hitzarmenaren arabera HABE izango da dirulaguntza osagarriak kudeatuko dituena.

## Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

**OTC PROGRAMAK 1.920.000 EURO BIDERATZEN DITU EUSKADIKO  
TXIKIZKAKO MERKATARITZA-BANAKETAREN SEKTOREAN  
BERRIKUNTZARAKO, TEKNOLOGIA BERRIETARAKO ETA  
KALITATERAKO LAGUNTZETARA**

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak 1.920.000 euroko programa onartu du Gobernu Kontseiluan, Euskadiko OTCei (Merkataritzako Bulego Teknikoei) euskarria emateko. 49 Bulego Teknikokoak sare horren helburua da kalitatezko aholkularitza ematea txikizkako merkataritza-banaketaren sektore osoari eta haren erakundeei, doan, eta sailtako politikak euskal retailera eramatea. Programa honen helburua da berrikuntzarekin, kalitatearekin eta teknologia berriekin lotutako prozesuak bultzatzea, langile kualifikatuaren laguntzarekin, eta maila anitzeko lankidetzak-estrategiak sustatzea.

2021eko ekitaldia pandemiaren osasun-krisiak markatuta jarraitzen duenez, eta, ildo horretan, merkataritza-sektoreko kalteak ahal den neurrian arintzeko, beharrezkotzat jo da aurreko deialdian sartutako irizpideari eustea. Irizpide horren bidez, bereziki baloratuko dira Covid-19ak sortutako egoeraren ondorio ekonomikoak arintzeko eta merkataritza-sektorea biziberritzeko ekintzak edo estrategiak bultzatzera bideratutako ekintzak. Hala ere, ekitaldi honetan proposamenak baloratzeko irizpideak erabat berrikusi dira. Irizpide horietan jarduerak-proiektuek izango duten garrantzia nabarmentzen da, baita proposatutako teknikarien gaitasun teknikoa eta elkarte eskatzaileen berezitasunak eta jardun-eremua ere.

Programak lau bulego mota aurreikusten ditu: zonakoak edo tokikoak, aldi berean merkatarien elkarrekin edo saltoki gehienak dituzten elkarte mistoei zuzendutakoak eta udalei, tokiko garapen-agentzietan eta beste toki-erakunde batzuei zuzendutakoak; lurralde-eremuak, zerbitzu espezializatuagoa emateko eta enpresen eta elkarten beharretara bideratua, lurralde-mailako merkataritza-eremuetako kide diren aldetik, eta, era berean, lurralde-kateari dagokionez, berrikuntza hori lortzeko helburuarekin.

Euskadiko Merkataritzako Bulego Teknikoak Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-enpresei laguntzeko aktibo nagusietako bat dira, eta balio erantsi handiko baliabidea dira politika publikoen koordinazioan eta kudeaketan. OTCek aholkularitza ematen diote sektoreari bere jarduerak gauzatzean eta lehiakortasuna hobetzean. Beren funtzioa eraginkorragoa da, lan egiten duten hurbiltasunetik.

Laguntzak eskatzeko epea: ebazpena EHAAr argitaratu eta hurrengo egunetik 2021eko urriaren 13ra arte.:

<https://www.euskadi.eus/servicios/1026908>

## Gobernanza Pública y Autogobierno

### **EL GOBIERNO VASCO SE ALLANA EN LOS RECURSOS CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVOS POR LAS MULTAS DURANTE EL PRIMER ESTADO DE ALARMA**

- **Los afectados que hayan recurrido a esta vía no deberán pagar la multa impuesta por el Departamento de Seguridad entre el 14 de marzo y el 21 de junio de 2020**
- **El allanamiento se produce tras la sentencia del Tribunal Constitucional en la que declaró inconstitucional y nulos varios apartados del Real Decreto del estado de alarma**

El Consejo de Gobierno ha autorizado al Servicio Jurídico Central del Gobierno Vasco el allanamiento en los recursos contencioso-administrativos instados por personas a las que se les ha incoado y tramitado procedimientos sancionadores durante el primer estado de alarma decretado el 14 de marzo de 2020. De este modo el Gobierno Vasco se allana en su demanda, lo que implica el final del proceso judicial y, en consecuencia, las varias decenas de afectados que han recurrido a esta vía no deberán pagar la multa.

La sentencia del Tribunal Constitucional (TC) de julio de 2021 declaró inconstitucionales y nulos varios apartados del Real Decreto 463/2020 que regulaba el estado de alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria por la covid-19 y en virtud de la cual quedaba restringida de forma drástica la movilidad ciudadana. El Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco ha estado incoando sanciones por incumplir con el confinamiento domiciliario entre el 14 de marzo y el 21 de junio de 2020.

A la vista de la sentencia del Tribunal Constitucional, el Gobierno Vasco ha concluido que la posición administrativa no tiene viabilidad jurídica y, por tanto, se ha solicitado a los Servicios Jurídicos allanarse en los recursos presentados en vía contencioso-administrativa.

## Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente

### AYUDAS POR VALOR DE 14,8 MILLONES PARA APOYAR UN SECTOR PESQUERO Y ACUÍCOLA VASCO SOSTENIBLE

- Para fomentar un sector sostenible e innovador basado en el desarrollo tecnológico, en la eficiencia energética y en el capital humano
- Se estima que 9 millones se destinen a pesca sostenible, 3,8 a medidas de producción, comercialización y a la acuicultura

El Gobierno Vasco ha aprobado, mediante orden de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, Arantxa Tapia, ayudas por valor de 14,8 millones de euros para apoyar **al sector pesquero y acuícola de la Comunidad Autónoma del País Vasco**. Estas ayudas tienen como objetivo principal fomentar un sector sostenible e innovador basado en el desarrollo tecnológico, en la eficiencia energética y en el capital humano.

Podrán ser beneficiarias de estas ayudas las personas físicas y jurídicas, las comunidades de bienes, las organizaciones profesionales pesqueras, las organizaciones de productores del sector pesquero, las cofradías de pescadores y sus federaciones y los organismos científicos o técnicos que contraten, financien o realicen las inversiones y gastos que se consideren subvencionables. **Del total de las ayudas aprobadas, se estima que 9 millones se destinen a pesca sostenible, 3,8 a planes y medidas de producción y comercialización, y el resto a la acuicultura.** Los recursos económicos destinados a financiar las ayudas previstas en esta convocatoria procederán tanto de fondos de la CAPV (3,7 millones) como del Fondo Europeo Marítimo y de la Pesca FEMP (11,1 millones).

Las líneas de ayuda están definidas entre otras para el ámbito de la Innovación pesquera; relevo generacional del sector pesquero, salud y seguridad en inversiones a bordo de los buques pesqueros o en equipos individuales; medidas dirigidas a limitar el impacto de la pesca en el medio marino y adaptación de la pesca a la protección de especies, protección y recuperación de la biodiversidad y los ecosistemas marinos y regímenes de compensación en el marco de actividades pesqueras sostenibles; así como el ámbito de la eficiencia energética y mitigación del cambio climático.

#### **Plazos**

El plazo de presentación de solicitudes para acogerse durante el ejercicio 2021 a estas ayudas será de un mes a partir de la entrada en vigor de la orden. No obstante, se entenderán dentro de plazo aquellos proyectos cuya solicitud se haya presentado de forma previa a la publicación de la orden, siempre que sea dentro del ejercicio 2021.

La ficha informativa del procedimiento administrativo donde están disponibles las instrucciones para la tramitación, las declaraciones responsables y los modelos de formularios, y a través de la cual se accede al formulario de solicitud está accesible en la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en la siguiente dirección: [https://www.euskadi.eus/agrupacion\\_servicios/2021/femp-2021/web01-a2arraku/es/](https://www.euskadi.eus/agrupacion_servicios/2021/femp-2021/web01-a2arraku/es/).



## Educación

### **EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN DESTINA 2,2 MILLONES DE EUROS PARA PROGRAMAS DE MOVILIDAD INTERNACIONAL DE ESTUDIANTES UNIVERSITARIOS**

- **El pasado curso 2020-2021 se concedieron 1.160 ayudas de movilidad internacional en Euskadi**
- **El Departamento de Educación incrementa la partida para esta convocatoria en 350.000 euros, en previsión de un aumento del alumnado participante en programas de movilidad**

El Consejo de Gobierno, en su reunión de hoy y a propuesta del consejero de Educación, ha aprobado la orden por la que se convocan subvenciones dirigidas a programas de movilidad de carácter internacional de estudiantes de universidades y de centros superiores de enseñanzas artísticas y deportivas ubicadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco, para el curso académico 2021-2022.

El importe global de esta convocatoria asciende a 2.200.000 euros. En comparación a cursos anteriores, el Departamento de Educación ha incrementado la partida para esta convocatoria en 350.000 euros, ya que las universidades prevén un aumento de de un 20% del alumnado participante en programas de movilidad.

La contribución financiera de la Comunidad Europea para las movidades del programa Erasmus+ es insuficiente para financiar el 100% del coste de las mismas; por tanto, se hace imprescindible ampliar la financiación mediante esta convocatoria. Asimismo, algunas de las movidades universitarias se realizan a destinos no incluidos en el programa Erasmus+, por lo que no tienen acceso a las ayudas de los organismos europeos, constatándose así la necesidad de financiación a las personas acogidas a este tipo de programas de movilidad.

Consciente de la importancia de la participación en programas de movilidad para el alumnado de enseñanza superior, el Departamento de Educación amplía el citado marco mediante esta convocatoria, que tiene como objetivo mejorar la financiación de las movidades de las personas acogidas bien al programa Erasmus+, bien a otros programas de movilidad universitaria de carácter internacional.

La dotación económica global de esta convocatoria (2.200.000 euros), por tanto, se desglosa de la siguiente manera:

- 660.000 euros para completar las ayudas otorgadas por el SEPIE (Servicio Español para la Internacionalización de la Educación).
- 1.540.000 euros para las estancias que se realizan sin la ayuda del citado organismo estatal.

Las entidades solicitantes de estas subvenciones serán las universidades y centros superiores de enseñanzas artísticas y deportivas que presenten programas de movilidad de carácter internacional durante el presente curso, mientras que los destinatarios finales de las ayudas económicas serán los y las estudiantes –con vecindad administrativa en algún municipio de la CAPV- acogidos a dichos programas de movilidad. Este alumnado deberá estar cursando durante este 2021-2022 estudios conducentes a la obtención de título universitario oficial de Grado, Master universitario o enseñanzas artísticas o deportivas superiores.

Durante el pasado curso 2020-2021, el Departamento de Educación concedió 1.160 ayudas de movilidad internacional en Euskadi.

## Educación

### **SUBVENCIÓN DE 500.000 EUROS A LA FUNDACIÓN EUSKAMPUS, PARA EL DESARROLLO DE LA RED DE LABORATORIOS TRANSFRONTERIZOS**

- **Desde el inicio de la iniciativa en 2015, se han creado cuatro Laboratorios Transfronterizos de Colaboración, en el marco del Campus Euroregional Euskampus-Bordeaux**

El Consejo de Gobierno ha acordado, a propuesta del consejero de Educación, conceder una subvención directa a la Fundación Euskampus, por un importe de 500.000 euros, para el desarrollo de la iniciativa R-LTC, Red de Laboratorios Transfronterizos de Cooperación.

Los LTC son iniciativas internacionalizantes de la investigación de excelencia y promueven la innovación desde la investigación y aspiran a proporcionar un marco estable para llevar a cabo proyectos de investigación en un ámbito específico con el objetivo de aumentar el valor añadido de los resultados científicos, así como la visibilidad de la investigación conjunta transfronteriza en la UE y a nivel internacional.

#### **Comunidades de investigación transfronterizas**

Los Laboratorios Transfronterizos de Cooperación (LTC) se desarrollan desde 2015 en el marco del Campus Euroregional Euskampus Bordeaux, entre la Universidad de Burdeos y la UPV/EHU y sus socios estratégicos en Euskampus (Tecnalia y DIPC) e IdEx Bordeaux, así como otras entidades de investigación vascas o francesas que puedan contribuir a los objetivos del Laboratorio.

Esta iniciativa de los LTC proporciona un marco institucional estable para que los equipos de investigación del País Vasco y de Burdeos trabajen juntos y apoyen la creación de comunidades de investigación verdaderamente transfronterizas, involucrando a personal investigador junior o senior, y también estudiantes, que puedan pasar de un equipo de investigación al otro sin límites y compartir una visión común.

Desde el inicio, se han creado cuatro Laboratorios Transfronterizos de Cooperación:

- En química física en la escala cuántica, QuantumChemPhys
- En ingeniería, AENIGME (Red Aquitania Euskadi en Fabricación Verde y Ecodiseño)
- En matemáticas y sus aplicaciones, TRANSMATH
- En materiales compuestos en base cemento sostenibles, GREEN CONCRETE

Los LTC han supuesto un hito en el desarrollo y consolidación del campus transfronterizo-euroregional.

Euskampus, en calidad de agente catalizador, facilitador y dinamizador de colaboraciones entre los grupos de investigación de las entidades que conforman su patronato y la Universidad de Burdeos, ha sido la encargada de diseñar e implementar los LTC, con el objetivo principal de proporcionar un marco de estabilidad a las colaboraciones entre los grupos que, con una trayectoria previa suficientemente sólida, impulsen nuevos proyectos estratégicos dentro de la agenda de investigación compartida.

Euskampus, mediante convenios firmados con cada uno de los LTC, financiará los gastos e inversiones derivados de los proyectos de investigación que cada LTC se compromete a realizar.

## Educación

### **480.000 EUROS PARA LA ADQUISICIÓN DE EQUIPAMIENTO CIENTÍFICO PARA EL IMPULSO DE LA INVESTIGACIÓN DE EXCELENCIA EN EL ÁMBITO DE LAS NEUROBIOCIENCIAS**

- **Las subvenciones, dirigidas a los centros de investigación de excelencia (BERC) Achucarro y BCBL, se enmarcan dentro de la Estrategia Ikur 2030 del Departamento de Educación**

El Consejo de Gobierno ha autorizado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, la concesión de dos subvenciones directas, por un importe total de 479.684 euros, a los Centros de Investigación Básica y de Excelencia (BERC) Achucarro y BCBL. En ambos casos, los centros de investigación destinarán la subvención a la adquisición de equipamiento científico para el desarrollo de la labor investigadora que realizan en el campo de las Neurobiociencias.

Estas subvenciones se enmarcan dentro de la Estrategia Ikur 2030 del Departamento de Educación. Esta estrategia persigue el objetivo de reforzar el tejido científico de Euskadi y alcanzar un posicionamiento internacional en nichos concretos. En este sentido, apuesta con fuerza por cuatro ámbitos estratégicos de investigación: las Tecnologías Cuánticas; la Neutrónica; la Supercomputación y la Inteligencia Artificial; y las Neurobiociencias, como es el caso de estas ayudas a los centros de investigación de excelencia Achucarro y BCBL.

Las cuantías de las subvenciones hoy aprobadas se distribuyen de la siguiente manera y con el siguiente objeto:

**399.684 euros para Achucarro Basque Center for Neuroscience, para la adquisición de un nuevo microscopio confocal con el que reforzar el nodo EuroBioImaging de Euskadi.**

Dada la importancia que la microscopía tiene en la actividad investigadora de este centro, Achucarro necesita incorporar un nuevo equipo de microscopía confocal que sea complementario al ya existente en sus instalaciones. Un equipo que desarrolla tecnología de super-resolución y que permite observar muestras a escala nanométrica. Este nuevo microscopio supondrá un valor añadido para toda la base de personal investigador usuario de estas infraestructuras, tanto los grupos del centro como otros equipos de investigación del ecosistema universitario vasco. La nueva adquisición permitirá, asimismo, un mejor posicionamiento del BERC Achucarro en la red europea EuroBioImaging de la que forma parte, así como un nuevo impulso a la investigación en el área de las Neurobiociencias en Euskadi.

Ubicado en el Parque Científico de Leioa, Achucarro Basque Center for Neuroscience es un centro de investigación BERC (Basque Excellence Research Centre) dependiente del Departamento de Educación. Se trata de un

centro dedicado a la investigación básica y traslacional en biología neuro-glial para el descubrimiento de nuevas terapias para enfermedades cerebrales.

**80.000 euros para BCBL - Basque Center on Cognition, Brain and Language, para el impulso a su laboratorio de *Eye Tracking*.**

El objetivo principal de la ayuda es el impulso al Laboratorio de *Eye Tracking* de BCBL, mediante la actualización del equipamiento científico del mismo. El equipamiento que BCBL adquirirá gracias a esta ayuda permitirá investigar los procesos mentales subyacentes durante tareas de lectura o de procesamiento de imágenes y vídeos, y así poder estudiar procesos cognitivos como la atención, la memoria, la solución de problemas o el lenguaje. Esta técnica resulta particularmente útil en el estudio de la lectura, ya que permite obtener información acerca del tiempo de fijación de la mirada del lector en cada palabra e identificar la secuencia con la que lee una frase, las partes que requieren más tiempo y las palabras ignoradas.

La actualización del equipamiento de su laboratorio de seguimiento de movimientos oculares permitirá al BCBL seguir a la vanguardia, tanto en tecnología como en conocimiento, en este ámbito.

BCBL (Basque Center on Cognition, Brain and Language) es un centro BERC de investigación de excelencia en Neurociencia Cognitiva del Lenguaje, con sede en Donostia-San Sebastián. Su actividad está especialmente orientada a la investigación en las siguientes líneas:

- Lenguaje, lectura y trastornos del desarrollo
- Multilingüismo y aprendizaje de una segunda lengua
- Neurodegeneración, daño cerebral y envejecimiento saludable.

## Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

### **EL CONSEJO DE GOBIERNO RECIBE EL INFORME DE CIFRAS SOBRE LA SITUACIÓN DE MUJERES Y HOMBRES Y LA MEMORIA DE LA ACTUACIÓN DE LOS PODERES PÚBLICOS EN IGUALDAD**

El Consejo de Gobierno ha tomado hoy conocimiento del [Informe de Cifras 2020 sobre la situación de mujeres y hombres en Euskadi](#) y [la Memoria de actuación de los poderes públicos en ejecución del VII Plan para la Igualdad de mujeres y hombres en la CAE](#), documentos que fueron aprobados en Consejo de Dirección de Emakunde el pasado de 14 de junio de 2021, y que ahora se comunicarán al Parlamento.

El informe de Cifras tiene como fin principal facilitar a las Administraciones Públicas información actualizada respecto a las desigualdades de género y su evolución, de modo que puedan definir sus estrategias y políticas para impulsar la igualdad de mujeres y hombres basándolas en diagnósticos más sólidos. Por otro lado, la Memoria de actuación de los poderes públicos es realizada anualmente por Emakunde e incluye un análisis tanto cuantitativo como cualitativo de las actuaciones de las administraciones públicas en el ámbito de la igualdad.

## Cultura y Política Lingüística

### **EL GOBIERNO VASCO REGULA LA COMPOSICIÓN Y EL FUNCIONAMIENTO DEL ÓRGANO INTERINSTITUCIONAL DEL PATRIMONIO CULTURAL VASCO**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el decreto por el que se regula la composición, organización, funcionamiento y funciones del Órgano Interinstitucional del Patrimonio Cultural Vasco.

La Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco, especifica las actuaciones que corresponden en materia de patrimonio cultural vasco a cada uno de los tres niveles de las Administraciones Públicas Vascas (Gobierno Vasco, diputaciones y ayuntamientos). El Órgano Interinstitucional del Patrimonio Cultural Vasco es el encargado de la comunicación, la cooperación y la asistencia entre los tres niveles administrativos con el objetivo de procurar un sistema homogéneo de protección del patrimonio cultural vasco.

Las funciones de este órgano son las siguientes:

- Favorecer el intercambio de información y la colaboración en la protección del patrimonio cultural vasco.
- Proponer criterios comunes y planes de actuación para la salvaguarda, transmisión, puesta en valor y difusión del patrimonio cultural vasco.
- Proponer medidas de coordinación de fomento del patrimonio cultural vasco.
- Promover una cooperación efectiva con el resto de administraciones implicadas en la tutela y gestión del patrimonio cultural vasco, con una especial incidencia en la ordenación del territorio y urbanismo, vivienda, industria, medio ambiente, turismo y educación.
- Habilitar los mecanismos de participación para que la ciudadanía proponga la protección de bienes culturales.
- Elaborar un plan de descontaminación visual y acústica de los bienes culturales.
- Proponer medidas de mejora en el ámbito de la protección y puesta en valor del patrimonio cultural vasco, teniendo en cuenta las particularidades de los distintos tipos de bienes culturales y la distribución competencial asignada a dicho efecto en la normativa en vigor.
- Impulsar la homogeneización de métodos y protocolos de actuación, consensuándolos entre las Administraciones Públicas representadas en el Órgano Interinstitucional de Patrimonio Cultural Vasco.
- Impulsar acuerdos de colaboración entre los servicios de las administraciones públicas vascas con responsabilidades en el ámbito del patrimonio cultural.
- Promover el establecimiento de un modelo común a todos los servicios, de información sobre patrimonio cultural.



- Estar informado sobre los anteproyectos de ley y los proyectos de disposiciones de carácter general en materia de protección del patrimonio cultural vasco.
- Plantear estrategias y propuestas de coordinación en el ámbito de las políticas públicas sectoriales de las Administraciones Públicas vascas, en las que la defensa y puesta en valor del patrimonio cultural vasco presente algún tipo de incidencia en las mismas.
- Ser informado de las normativas autonómicas, forales y locales en materia de protección del patrimonio cultural.

El Órgano Interinstitucional de Patrimonio Cultural Vasco contará con 12 miembros: seis del Gobierno Vasco, tres representantes de las diputaciones forales y otras tres en representación de los ayuntamientos. Además, este órgano se deberá constituir en un plazo de tres meses desde que se publica el decreto aprobado hoy por el Consejo de Gobierno.

## Cultura y Política Lingüística

### **HABE y la Diputación Foral de Gipuzkoa ratifican el convenio para la gratuidad de los estudios hasta el nivel B2**

El Consejo de Gobierno de hoy ha aprobado el convenio entre HABE, el Instituto de Alfabetización y Reeskaldunización de Adultos, y la Diputación Foral de Gipuzkoa. El acuerdo establece que el proceso de aprendizaje hasta el nivel B2 en la euskaldunización de adultos en Gipuzkoa será gratuito. Para lograr este objetivo la Diputación Foral de Gipuzkoa prestará ayudas complementarias a los alumnos guipuzcoanos que hayan superado los niveles de euskera dentro del sistema de HABE.

Según el convenio aprobado hoy por el Consejo de Gobierno, HABE será el encargado de gestionar estas subvenciones complementarias.

## Turismo, Comercio y Consumo

### **EL PROGRAMA OTC DESTINA 1.920.000 EUROS EN AYUDAS A LA INNOVACIÓN, NUEVAS TECNOLOGÍAS Y CALIDAD EN EL SECTOR DE LA DISTRIBUCIÓN COMERCIAL DE CARÁCTER MINORISTA EN EUSKADI**

El Departamento de Turismo, Comercio y Consumo ha aprobado en Consejo de Gobierno el programa dotado con 1.920.000 euros que da soporte a las OTC de Euskadi (Oficinas Técnicas de Comercio). Esta red de 49 Oficinas Técnicas está destinada a proporcionar un asesoramiento de calidad de forma gratuita a todo el sector de la distribución comercial de carácter minorista y sus organizaciones y trasladar al retail vasco las políticas departamentales. Este programa tiene como objetivo impulsar, mediante la asistencia de personal cualificado, procesos relacionados con la innovación, calidad y nuevas tecnologías, así como promover estrategias de colaboración multinivel.

Debido a que el ejercicio 2021 continúa marcado por la crisis sanitaria de la pandemia y en este sentido, para paliar en la medida de lo posible los daños en el sector comercial, se ha considerado necesario mantener el criterio introducido en la pasada convocatoria mediante el que se valorarán especialmente las acciones destinadas al impulso de acciones o estrategias dirigidas a paliar las consecuencias económicas de la situación generada por el Covid-19 y la revitalización del sector comercial. Si bien en este ejercicio se han revisado completamente los criterios de valoración de las propuestas donde destaca la importancia que van a tener los proyectos de actuación, así como la capacidad técnica del personal técnico propuesto y las propias especificidades de las asociaciones solicitantes y su ámbito de actuación.

El programa contempla cuatro tipos de oficinas: las de ámbito zonal o local, que a su vez se subdividen en aquellas destinadas a asociaciones de comerciantes o asociaciones mixtas con presencia mayoritaria de comercios y en aquellas destinadas a ayuntamientos, agencias de desarrollo local y otros entes locales; las de ámbito territorial, con el objetivo de dar un servicio más especializado y enfocado a las necesidades de las empresas y asociaciones como integrantes de las zonas comerciales a nivel territorial y también con el objetivo de lograr una mayor eficiencia en la cadena de distribución; y como novedad en esta convocatoria las de ámbito gremial territorial, destinadas a aquellas asociaciones de comerciantes o de servicios relacionados con la actividad comercial urbana que agrupan a profesionales de un mismo gremio específico, y por tanto especializados en la idiosincrasia y problemática específica para dicho sector (enfoque gremial) y ubicadas en un territorio específico.

Las Oficinas Técnicas de Comercio del País Vasco representan uno de los activos principales de asistencia a las empresas comerciales de la Comunidad Autónoma y constituyen un recurso de alto valor añadido en la coordinación y gestión de las políticas públicas. Las OTCs proporcionan al sector asesoramiento en el desempeño de sus actividades y en la mejora competitiva. Su función es más operativa desde la cercanía con la que trabajan.

El Plazo de solicitud de las ayudas: del día siguiente al de la publicación de la resolución en el BOPV prevista para el día 13 de octubre hasta el 8 de noviembre de 2021.

El proceso se realizará de manera exclusiva a través de la sede electrónica:  
<https://www.euskadi.eus/servicios/1026908>